



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko ekainaren 3a

59. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, erosahaltenaren galera dela-eta 2012rako eraginarekin aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duen abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea aldatzen duena. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu dute (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duena. Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak aurkeztu dute (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean debekatzen duena haustura hidraulikoaren teknika erabiltzea gas ez-konbentzionala ikertzeko eta erauzteko teknika gisa. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).
- Foru Lege proposamena, uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea, Taxiari buruzkoa, aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).
- Foru Lege proposamena, Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (7. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, Nafarroako Gobernua azpiegituren alorrean gauzatzen ari den politika orokorrari eta horrek Nafarroako aurrerapenean eta garapen sozioekonomikoan duen eraginari buruzkoa, Juan Carlos Longás García jaunak egina (8. or.).
- Jabeldura, Sustapen Departamentuaren politika orokorrari buruzkoa, salgaien eta bidaiarien Nafarroatik eta Nafarroaranzko tren garraioa ibilbideei dagokienez, Marisa De Simón Caballero andreak egina (9. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da behin betiko itxi dezan Garoñako zentral nuklearra. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriki dezan Nafarroako Museoei eta BILDUMA Museografiko Iraunkorrei buruzko uztailearen 2ko 10/2009 Foru Legearen edukia. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lan Arriskuei buruzko Legea bere esparru osoan aplikatu dezan; bereziki, landa eremuko larrialdietan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriki dezan Foru Komunitatean dauden turismo bulegoak irekitzeko buruzko politika. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesarekin adierazten die Tuterako “Gamesa” enpresako langileei, eta Nafarroako Gobernua animatzen du aderez lan egin dezan energia berriztagarrien sektorea berriro erreferentziako tokian jartze aldera. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, Emakumeen Osasunaren Aldeko Nazioarteko Ekintza Eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuaitzen du irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuaren aldaketa, zeinaren bidez atea irekitzen baita Administrazioan aurrekontu arrazoiengatik kanporatze kolektiboak egiteari. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Erriberriko turismo bulegoaren ordutegia murrizteari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egin (17. or.).
- Galdera, Mendiei buruzko Erregelamendua onesten duen otsailaren 17ko 59/1192 Foru Dekretuko 89 eta 90. artikulua betetzeko hartutako neurriari buruzkoa, Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egin (18. or.).
- Galdera, BEZa dela-eta, 2013ko apirilean lortuta zegoen diru-bilketari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (18. or.).
- Galdera, udako igerileku berriak finantzatzeko, Tafallako Udaleri diru-laguntza bat emateko hartu beharreko erabakiaren zirriborroari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (19. or.).
- Galdera, Ultzama, Malerreka, Baztan, Altsasu, Irurtzun, Etxarri-Aranatz, Leitza eta Bortzirietako oinarriko gizarte zerbitzuen mankomunitateek Nafarroako toki entitateentzako diru-laguntzen deialdiaren oinarriak 2013rako ezartzen dituen Foru Aginduaren aurka aurkeztutako errekurtsioari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (20. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, erosahalmenaren galera dela-eta 2012rako eraginarekin aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duen abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentutaldeen eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu dute erosahalmenaren galera dela-eta 2012rako eraginarekin aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duen abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin erosahalmenaren galera dela-eta 2012rako eraginarekin aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duen abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamena presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeinak bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erosahalmenaren galera dela-eta  
2012rako eraginarekin aldi  
baterako osagarri pertsonal bat  
sortzen duen abenduaren 28ko  
28/2012 Foru Legea  
aldatzen duen  
Foru Lege proposamena**

ZIOEN AZALPENA

2012ko abenduaren 20an Nafarroako Parlamentuak Erosahalmenaren galera dela-eta 2012rako eraginarekin aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duen abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea onetsi zuen. Lege horrek ezartzen du Nafarroako administrazio publikoek aipatu osagarria ordainduko dutela, 2012ko uztailean jaso zen aparteko pagaren antzeko zenbatekoarekin. Nafarroako toki administrazio batzuetan lege hori bete zuten, 2012ko abenduan zenbaitetan, eta beste hainbatetan, zenbait administrazio-atzerapen uler-garrirengatik, 2013ko urtarrilean, baina 2012ko aurrekontuaren kontura.

Joan den martxoan Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkartzak errekurtsua aurkeztu zuen, Nafarroako Administrazio Auzitegiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, toki entitate batzuen aurka. Besteak beste, honako hau argudiatu zuen: aipatu legeak aurreikusten zuen 2012ko abenduaren 31 baino lehen ordaintzea, eta horretatik ondorioztatzen du ezin zela geroago ordaindu.

Guztiz agerikoa da Nafarroako Parlamentuaren asmoa beti izan dela aldi baterako osagarria jasotzea, administrazio atzerapenak gorabehera. Beraz, administrazioek ordainketa aipatu eguna baino geroago erabaki badute, horrek ez du oztopo izan behar osagarria jasotzeko. Hala eta guztiz ere, lege hori aplikatuz Nafarroako toki entitate batzuetan egin diren ordainketen segurtasun juri-

dikoa bermatzeko, bidezko da aldatzea bere artikuluko bakarraren bigarren puntua, betetzeko epeak aipatzen dituen.

**Artikulu bakarra.** Aldatu egiten da abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen artikuluko bakarraren 2. puntua. Honela gelditzen da:

“2. Ordainsaria 2013ko abuztuaren 31 baino lehen ordainduko da, ordainketa bakarrean, eta funtzionario bakoitzari aurreko idatz-zatian ezarritakoarekin bat dagokion zenbatekoa ordainduko zaio”.

**Azken xedapena.** Aldaketa honek 2013ko urtarilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

## **Foru Lege proposamena, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztuari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak aurkeztu dute Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarrek prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamena presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeinak bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Lege proposamena, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duena**

### ZIOEN AZALPENA

Ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legeak arautzen du Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7aren esleipena.

Arau horretan, geroago, aldaketak egin dira, baina zuzendu gabe gelditu dira legearen garapenean agertu diren akats batzuk.

Foru Lege proposamen honen helburua da tributuen 0,7 horren kudeaketa hobea eta eraginkorragoa lortzen laguntzea, errenta aitortenean gizarte-xedeen laukitxoa markatzen duten nafar herritarren borondatea betetzea, Nafarroako toki entitateen lana ahalbidetzea eta tresna eraginkorra eta osagarria izatea Nafarroako pobrezia eta gizarte bazterketaren aurkako borrokan eta gizarte intereseko bestelako xede batzuetan.

**Artikulu bakarra.**

Ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7aren esleipena arautzen duena

Ondotik adierazten diren foru lege horren aginduak era honetan aldatzen dira:

Bat. Artikulu berri bat gehitu da: 4 bis.

“a.- Hiru hilabeteko epean, urte bakoitzeko errenta kanpaina bukatu eta gero, gizarte entitate-entzako diru-laguntzetarako deialdiak onetsiko

dira. Aipatu deialdiak urtea bukatu baino lehen ebatziko dira, hurrengo urteko urtarriletik aurrera exekutatu ahal izan daitezten.

b.- Tributuen ehuneko 0,7aren esleipenetik sortzen diren zenbatekoak lehia libreko deialdietan sartuko dira, eta ez dira erabiliko kontusail izendunetan”

**Azken xedapena.**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean berean hartuko du indarra.

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean debekatzen duena haustura hidraulikoaren teknika erabiltzea gas ez-konbentzionala ikertzeko eta erauzteko teknika gisa.**

**ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2013ko maiatzaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Foru Lege proposamen hau: “Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean debekatzen duena haustura hidraulikoaren teknika erabiltzea gas ez-konbentzionala ikertzeko eta erauzteko teknika gisa”. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2013ko apirilaren 9ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 108. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.** Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean haustura hidraulikoaren teknika erabiltzea gas ez-

konbentzionala ikertzeko eta erauzteko teknika gisa debekatzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **epe bat hasiko da, 2013ko ekainaren 21eko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## Foru Lege proposamena, uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea, Taxiari buruzkoa, aldatzen duena.

### ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2013ko maiatzaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea, Taxiari buruzkoa, aldatzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2013ko apirilaren 9ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 108. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea, Taxiari buruzkoa, aldatzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **epe bat hasiko da, 2013ko ekainaren 14ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## Foru Lege proposamena, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duena.

### ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2013ko maiatzaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2013ko apirilaren 15eko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 108. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen

duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **epe bat hasiko da, 2013ko ekainaren 14ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Lege proposamena, Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duena.**

### **ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2013ko maiatzaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2013ko apirilaren 23ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 11. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

#### **ERABAKIA:**

**1.** Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duen Foru

Lege proposamena presako prozedurari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Gizarte Politiketako Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **zortzi egun balioduneko epea hasiko da eta 2013ko ekainaren 14ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahaliko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, Nafarroako Gobernua azpiegituren alorrean gauzatzen ari den politika orokorrari eta horrek Nafarroako aurrerapenean eta garapen sozioekonomikoan duen eraginari buruzkoa.**

*JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernua azpiegituren alorrean gauzatzen ari den politika orokorrari eta horrek Nafarroako aurrerapenean eta garapen sozioekonomikoan duen eraginari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **JABELDURAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan Carlos Longás García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari.

Jabeldura, Nafarroako Gobernua azpiegituren alorrean gauzatzen ari den politika orokorrari eta horrek Nafarroaren aurrerapenean eta garapen sozioekonomikoan duen eraginari buruzkoa.

Duela gutxi, Gobernuko lehendakari Barcina andreak Parlamentuko batzorde batean hau adierazi zuen: "historiak barregarri utziko ditu Foru Komunitatearen garapenerako garrantzitsuak diren azpiegituren aurka egon diren pertsona guztiak," eta zehazki aipatu zituen Iruñeko Gaztelu plazako aparkalekua eta abiadura handiko trena. Hori ez da mezu isolatua, baizik eta behin eta berriz errepikatzen dutena bai lehendakariak berak, bai Gobernuko eta UPNko kideek eta bes-

telako eragile politiko eta sindikalek. Barcina andrearen kasuan, bereziki deigarria da behin eta berriz aipatzea Gaztelu plazako aparkalekua Nafarroaren "aurrerapenerako" edo "garapenerako" ekarpen gisa.

Agerikoa denez, gaitzespen politikorako mekanismo bat da, neurri batean behintzat. Baina, horretaz gain, horrek baditu politika ekonomikoaren arloko inplikazioak; izan ere, aurrerabide eta garapen sozioekonomikoaren kontzeptu jakin bat islatzen du. Era berean, zurigarri bat ere bada, lausoa, zehaztugabea, orokorra eta justifikazio eskasekoa bada ere, jada ohikoa den kostu-onoraren azterketa zehatzen gabetia estaltzeko, halako proiektuen errentagarritasun sozioekonomikoa neurtzerakoan.

Egia da "garapen" eta "aurrerabide" bezalako terminoek askotariko adierak dituztela. Egia da, halaber, adostasun zabalak ari direla sortzen termino horien interpretazioaren inguruan, Nafarroako Gobernuaren ohiko interpretazioaren aurka doazenak. Azkenik, egia da zenbait azpiegituren, –bereziki, garraioarekin loturikoak– eta garapen ekonomikoaren arteko erlazio kausal eta automatikoak ez duela inongo babesik esparru tekniko eta akademikoan.

Nafarroako Gobernuak behin eta berriz lotzen du, erabateko ziurtasunez, aurrerabidea zenbait azpiegiturarekin, baina guk ez dugu informaziorik horri buruz, edota dugunak kontrakoa adierazten du, itxuraz. Hori dela eta, ezinbestekoa da ezagutzera Nafarroako Gobernuak eta, bereziki, bere lehendakariak, dituzten arrazoi eta datu zehatzak, Gaztelu plazako aparkalekua eta abiadura handiko trena bezalako azpiegiturak lotzeko Nafarroaren aurrerabidearekin eta garapenarekin.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longás García



## **Jabeldura, Sustapen Departamentuaren politika orokorrari buruzkoa, salgaien eta bidaiarien Nafarroatik eta Nafarroaranzko tren garraioko ibilbideei dagokienez.**

### *MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko jabeldura, Sustapen Departamentuaren politika orokorrari buruzkoa, salgaien eta bidaiarien Nafarroatik eta Nafarroaranzko tren garraioko ibilbideei dagokienez.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **JABELDURAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, jabeldura hau aurkeztu dio Sustapeneko kontseilariari, Eledunen Batzarrean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako trenbide sarearen modernizazioa eta Abiadura Handiko Trenaren proiektu-aldaketa direla-eta izan diren azken gertakariak, bai eta Renferen iragarpenak, ibilbide, geltoki eta maiztasunak kendu eta bidaiarientzat autobus bidezko garraio alternatiboa proposatzekoak, nolabaiteko zalantza, kezka eta harridura eragin dizkigu eta eragin ditu gizartean. Hori dela eta, ondoko jabeldura aurkeztu dugu, Sustapen Departamentuaren politika orokorrari buruzkoa, alderdi hauei dagokienez: epe labur, ertain eta luzeko aurreikuspenak, Nafarroarako eta Nafarroatik salgai-garraioari dagokionez; eta bidaiarien garraioari dagokionez ere, aldirietako eta distantzia ertain eta luzeko tren ibilbideak, baita maiztasunak direla eta.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da behin betiko itxi dezan Garoñako zentral nuklearra.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita behin betiko itxi dezan Garoñako zentral nuklearra.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Garoñako zentral nuklearrak itxita egon behar zuen duela hamar urte, lehen belaunaldiko zentral zahar bat baita, egiazko arriskuak eragiten dituen inguruan eta ingurumenean. Estatuko zentral nuklearrik zaharrena da, eta Fukushimako lehenbiziko erreaktorearen berdin-berdina da.

Zentral nuklear horrek egitura- eta korrosio-arazo larriak izan ditu erreaktorean, azken urteotan zortzi istripu baino gehiago eragin dituztenak, eta Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak berak aitortu du larriki hondaturiko hainbat elementu daudela. Era berean, zentralaren funtzionamendurak kutsadura termikoko arazo larriak eragiten jarraitzen du Ebro ibaian.

Agerikoak dira energia nuklearrak, orokorrean, eta Garoñako zentralak, bereziki, herritarrentzat dakartzaten arrisku larriak.

Bestalde, Endesak eta Iberdrolak zentral horren jarduerarekin jarraitzeko interesik ez badute ere eta zentralaren itxiera jada erabakita bazegoen ere, Garoñako zentralak berak eskatu dio Gobernuari lantegia ustiatzeko baimena "urtebeterrako" berri diezaion. Horretarako, 2009ko uztailaren 3ko Ministerio Aginduaren baliogabetze partziala eskatu du, halako moduz non data berri bat ezarriko zaion, ustiapen-baimena berri ahal izateko.

Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak laster emanen du bere iritzia aurreikusitako itxiera data atzeratzeko Nuclenorrek eginiko eskariari buruz.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du 2013ko uztailaren 6an behin betiko itxi dezan Garoñako zentral nuklearra.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriki dezan Nafarroako Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko uztailaren 2ko 10/2009 Foru Legearen edukia.**

### **AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berriki dezan Nafarroako Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko uztailaren 2ko 10/2009 Foru Legearen edukia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Museoen Foru Legearen ebaluazioa eskatzeari buruzko mozio hau aurkeztu du, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatzeko eta onesteko.

Heldu den uztailaren 18an lau urte beteko dira Nafarroako Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko uztailaren 2ko 10/2009 Foru Legea indarrean sartu zenetik.

Gaurko egunez, Parlamentu-talde Popularrak ez daki ezer Nafarroako Gobernuak arau horren aplikazioaren gaineko ebaluazio eta azterketa prozesuari ekiteari buruz, eta, itxura denez, ez dago horri buruzko datu publikorik ere.

Nafarroako Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko uztailaren 2ko 10/2009 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarrian honako ezartzen da:

Foru legeak indarra hartzen duenetik departamentu eskudunak haren betetzearen emaitzak ebaluatuko ditu, lau urtez behin, betetzen ari ote den zehazteko eta egokitzat jotzen diren lege eta erregelamendu mailako aldaketak proposatzeko. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari igorri beharko dizkio ebaluazioaren emaitzak, horri buruzko saio monografiko bat egin dezan.

Berrikuspen hori egiteko ezarritako epea ia agortuta dagoenez, bidezkoa eta komenigarria da gogoraraztea berrikuspen hori epe egokian hasteko beharra.

Legezko agindua eta iragandako denbora alde batera utzita, arloko departamentu eskudunak egun duen egoera ekonomiko eta egiturazkoak, zeina oso desberdina baita aipatu foru legea onetsi zenekoaren aldean, aholkatzen du ebaluazio aldia hastea.

Bisitari kopuruaren bilakaera da, halaber, aintzat hartu beharreko faktore bat, une honetan erkidegoak dituen dotazio kopuruarekin batera –berrogeita hamar dotazioen publiko eta pribatu, museo, bilduma iraunkor eta erkidego osoan barrena dauden bestelako erakusketa-zentroak kontuan hartuta–.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Berriki dezan Nafarroako Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko uztailaren 2ko 10/2009 Foru Legearen edukia.

2. Ebaluazio hori Parlamentura igor diezaion hiru hilabeteko epean, gai horri buruzko saio monografiko bat egite aldera.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lan Arrisku- ei buruzko Legea bere esparru osoan aplikatu dezan; bereziki, landa ere- muko larrialdietan.**

### *SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Lan Arriskuei buruzko Legea bere esparru osoan aplikatu dezan; bereziki, landa eremuko larrialdietan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lan Arriskuei buruzko Legea bere esparru osoan aplikatu dezan; bereziki, landa eremuko larrialdietan.

Lan Arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 14. artikulua honela dio:

14. artikulua: Lan-arriskuen aurrean babesa izateko eskubidea.

Langileek eskubidea dute laneko segurtasun-eta osasun-arloan benetako babesa izateko. Eskubide horrek enpresaburuarentzat dakar langileak lan-arriskuetatik babesteko eginbeharra. Babes-eginbehar hori dute, berebat, administrazio publikoek, euren zerbitzuean dauden langileekin.

Lege honen arabera informazio, kontsulta eta partaidetarako eskubideak, prebentzio-arloko prestakuntzarako eskubidea, arrisku larri eta hururrekoa dagoenean jardura geldiarazteko eskubidea, eta osasun-egoera aztertzeko eskubidea

biltzen dira langileek laneko segurtasun eta osasun-arloan duten benetako babes-eskubidera.

Babes-eginbeharra betetzeko, enpresaburuak bere zerbitzuean dauden langileen segurtasuna eta osasuna babestu beharko ditu, lanarekin zerkusia duten alde guztietan. Ondore horietarako, enpresaburuak, bere erantzukizunen esparruan, lan-arriskuak prebenituko ditu, enpresan prebentzio-jardura ezarriz, eta langileen segurtasun eta osasuna babesteko behar besteko neurriak hartuz; horretarako, aintzat hartuko ditu hurrengo artikuluetan jasotako berezitasunak, lan-arriskuak prebenitzeko planari, arriskuak ebaluatzeari, langileen informazioa, kontsulta zein partaidetza eta prestakuntzari, larrialdietan eta arrisku larri eta hururrekoetan jarduteari eta osasunaren zaintzari dagokienez, erakunde bat eratuz eta behar besteko tresnen bidez, lege honen IV. kapituluaren ezaurretakoaren arabera.

Enpresaburuak prebentzio-jardueraren segimendua modu iraunkorrean gauzatu du, saihes-tu ahal izan ez diren arriskuak identifikatu, ebaluatu eta kontrolatzeko jarduerak eta babes-mailak etengabe hobetzeko. Orobat, enpresaburuak behar besteko aginduak eman ditzake, aurreko paragrafoan aipatu prebentzio-neurriak bat etor daitezela inguruabarrek izan ditzaketen aldaketekin.

Enpresaburuak bete beharko ditu lan-arriskuak prebenitzeko arautegian ezarritako eginbeharrak.

Lege honetan ezarritako langileen betebeharrak, babes eta prebentzio-eginkizunak langileei edo enpresako zerbitzuei eratzizkoak, eta prebentzio-jarduerak gauzatzeko erakunde espezializatuekin egindako hitzarmenek osatu egingo dituzte enpresaburuaren ekintzak. Hala ere, horiek ez dute enpresaburuaren askatuko arlo honetan duen eginbeharra betetzetik, edonoren aurka erabil ditzakeen akzioak gorabehera.

Laneko segurtasun- eta osasun-neurrien kostua ezin izan behar duela inola ere ezarri langileei.

Horrenbestez, ulertzen dugu litekeena dela landa eremuko medikuen, bai oinarriko osasun laguntzako, bai Landa Eremuko Larrialdi Zerbitzuko lan baldintzak ez etortzea guztiz bat indarrean dagoen legediarekin; bestetik, ez da egin haien lanpostuen arriskuen ebaluazioa eta, jakina,

ez zaizkie eskura jarri beharrezkoak diren neurriak eta norbanakoaren babeserako ekipoak, beren lana segurtasun baldintza onenetan gauzatu dezaten; eta, halaber, ulertzen dugu kasu honetan enpresaburuaren figura Nafarroako Gobernuak hartzen duena bere gain. Horregatik guztiagatik, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko erabaki proposamena aurkezten du, Parlamentuko Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta, ondorioz, Osasunbidea-Osasun Departamentua premiatzen du Lan Arriskuei buruzko Legea langile kontratatu guztiei aplikatu diezaien; bereziki, landa eremuko larrialdietan, profesional horiek kalitatezko zerbitzu hobea eman ahal izan diezaieten herritarrei.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 23an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrikus dezan Foru Komunitatean dauden turismo bulegoak irekitzeari buruzko politika.**

### *SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berrikus dezan Foru Komunitatean dauden turismo bulegoak irekitzeari buruzko politika.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Allik, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrikus dezan Foru Komunitatean dauden turismo bulegoak irekitzeari buruzko politika.

Nafarroak "Fitur" azokan parte hartu zuenean, Nafarroako herritarrek aukera izan zuten Foru Komunitateko turismoaren sektorearen zenbateko-

ek izandako bilakaera ezagutzeko, bai eta sektore horretako erakunde-arduradunen iritzia ere.

"Egoera ekonomikoa konplexua izanda ere, turismoaren sektoreak lortu du urte zail batean aurrera ateratzea," esan zuen Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak, horretarako deituriko prentsaurrekoan.

Datuak azaltzean, kontseilariak nabarmendu zuen Nafarroako hotelek krisi urte honetan izandako "portaera ona" eta Nafarroara etortzen diren atzerriko turisten kopuruaren igoera "nabarmena" (% 13,2); gainera, esan zuenez, Nafarroa buru da helmuga turistikoaren artean, bisitarien gogobetetze-mailari dagokionez. Iazko urtarriletik azarora bitartean, txangozaleak aintzat hartu gabe, 1.024.521 bidaiari hartu zituen Nafarroak, eta 2.219.627 ostatu-gau izan ziren; horrek esan nahi du % 3,9 eta % 5,2 murriztu direla, hurrenez hurren, 2011ko datuekin alderatuz gero.

Turismoa turisten jatorriaren arabera aztertuz gero, Sánchez de Muniáin jaunak aipatu du eskaera turistiko nazionalaren jaitsiera izan dela –% 18,2 turista nafar eta % 12,6 euskal turista gutxiago– eta, aldiz, nazioartekoa areagotu egin dela, batez ere turista frantsesena. Atzerriko turismoari dagokionez, Fronturren datuek diote 2012an 245.134 turista atzerritarrek hartu zutelako ostatu Nafarroan, 2011n baino % 13,2 gehiago. Espainiako bigarren hazkunde handiena da –batez besteko hazkunde % 2,7koa izan zen, nahiz eta zazpi autonomia erkidegok zenbaki negatiboak izan–. Turismoa, kontseilariak ondorioztatu zuenez, "sektore gero eta garrantzitsuagoa da".

Azkenik, azalpenei dagokienez, Nafarroako lehendakari Yolanda Barcinak sektorearen garrantzia nabarmendu zuen eta bi Nafarroen arteko lankidetzatza turistikoa indartzera animatu zuen iragan maiatzaren 21ean, oraingo honetan kultur turismoari eskaini zaion mintegiaren karietara, Erriberriko kultur etxean egin zen ekitaldi instituzionalan.

Hala ere, azken asteotan jakin dugu hedabideen bitartez Nafarroako Gobernuak erabaki duela nabarmen murriztea Foru Komunitateko turismo bulegoen ordutegia, eta hori bereziki esanguratsua da Orreaga, Erriberri eta Lizarra bezalako toki enblematikoetako bulegoen kasuan, besteak beste. Arlo horretako kontseilariaren azalpenak entzunda, badirudi erabaki hori doala Nafarroako Turismoko Plan Integralean eta bestelako plan sektorial batzuetan adierazitakoaren aurka.

Erabaki proposamenaren testua:

1. Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Turismoko Plan Integralean eta bestelako plan sektorial batzuetan aurreikusitakoarekin bat, uste du turismoa gorantz egiten ari den sektorea dela, eta garrantzi berezia duela gure erkidegoko eskualde jakin batzuen garapen ekonomiko eta sozialerako; bereziki, Nafarroako landa eremuetan.

2. Horren ondorioz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du berrius dezan Foru Komunitatean dauden turismo bulegoak irekitzeari buruzko politika, eta jo dezan horien presentzia eta ordutegia indartzera, murriztu beharrean, turismoaren sektoreak Nafarroako ekonomiarari egiten dion ekarpen positiboa hobetzen laguntzeko neurri egoki gisa.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 23an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten die Tuterako “Gamesa” enpresako langileei, eta Nafarroako Gobernuak animatzen du aderez lan egin dezan energia berriztagarrien sektorea berriro erreferentziako tokian jartze aldera.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten die Tuterako “Gamesa” enpresako langileei, eta animatzen ditu sindikatuen ekintza-batasunetik lan egin dezaten, egoera zail honetan ahal den akordiorik onena bilatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari eta horretara animatzen du, dei egin diezaion Espainiako Gobernuari, zehazki Industria Ministerioari, premiazko lan bilerak egitera sektoreko ordezkariekin batera, bertan egungo egoera aztertzeko, kontuan hartuta Nafarroako sektore horretan duen nagusitasuna. Bilera horien xedea izanen litzateke energia berriztagarrien sektorea bihurtzea, bai Espainian bai Nafarroan, ez beste langabezia sektore bat, baizik eta etorkizuna eta lehiakortasuna duen sektorea, eta

bilera horietan aztertu beharko lirateke enpresek gure herrialdean eta Foru Komunitatean jarraitzeko oztopo izan daitezkeen araugintza-kontuak.

3. Nafarroako Parlamentuak Gamesari eskatzen dio kaleratuko diren langileekin akordio duinak lortzeko borondatea izan dezan; izan ere, ulertzen du egungo lan arloko araudiak egoera horretan dauden langileei ematen dien tratua ez dela duina.

4. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela Gamesako zuzendaritzak erraztasun handiena ematea, kasua bada, Tuterako lantegiak etorkizunean lan aukerak sortuko dituzten jardueira produktibo berriak har ditzan, halako moduz non era berean arinduko baita ixteko erabakiak sortu duen egoera.”

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala, Emakumeen Osasunaren Aldeko Nazioarteko Ekintza Eguna dela-eta.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Emakumeen Osasunaren Aldeko Nazioarteko Ekintza Egunarekin eta heldu den maiatzaren 28an hura ospatzeko eginen diren ekitaldiekin.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du informazioa eta osasun zerbitzu doako eta kalitatezkoak unibertsalak izatearen alde dagoela, bizi-tzaren etapa guztietan.

3. Nafarroako Parlamentuak defendatzen du emakumeen eskubidea ugalketa- eta sexu-osasun egokia izateko, indarkeria edo hertsapenik gabekoa, arrisku edo nahi gabeko ondorioz gabea, eta ugalketa- eta sexu-eskubideak giza eskubide-tzat aitortzen ditu. Horrekin lotuta, defendatzen du emakumeen eskubidea legez eta segurtasunez abortatzeko munduko edozein tokitan, eta kalita-

teko osasun laguntza jasotzeko haurdunaldia nahita eteterakoan, haurdunaldian, erditzean eta bere sexu- eta ugalketa-bizitza osoan.

4. Nafarroako Parlamentuak bere borondatea adierazten du 2010eko Sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko Legea hezkuntzaren esparruan ere gara dadin, eta sexu-heziketa integrala ziurta dadin, eskolako curriculumean txertaturik. Halaber, bere borondatea adierazten du berdintasun eta hezkidetzari balioetan oinarritutako hezkuntza berma dadin.

5. Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen ditu berdintasun politiketako eta indarkeria sexistaren aurkakoetako murrizketak, eta bere borondatea adierazten du arlo horretan zeharkako politika eraginkorrak susta daitezen.”

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuaren aldaketa, zeinaren bidez atea irekitzen baitzaio Administrazioan aurrekontu arrazoiengatik kanporatze kolektiboak egiteari.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

1. Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuaren aldaketa, zeinaren bidez atea irekitzen baitzaio Administrazioan aurrekontu arrazoiengatik kanporatze kolektiboak egiteari. Kanporatze horiek eragina izanen lukete Nafarroako Gobernuaren menpeko 5879 langilerengan eta toki entitateetako beste askorengan.

2. Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen ditu enplegu publikoaren suntsiketari eta langileen lan baldintzen prekarizazioari sakontzen duten neurriak.

3. Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Nafarroako administrazioetako behin-behinekotasun tasa gehiegizkoa, bereziki handia dena Osasun eta Hezkuntza departamentuetan, eta bere borondatea agertzen du, plantillari egonkortasuna ematera bideratutako neurriak har daitezen.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera





---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Erriberriko turismo bulegoaren ordutegia murrizteari buruzkoa.****ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Erriberriko turismo bulegoaren ordutegia murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko.

Maiatzaren 16tik, Erriberriko turismo bulegoaren ordutegia erdia baino gehiago murriztu da, Nafarroako Gobernuak Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuak bere aurrekontuan eginiko murrizketaren ondorioz. Horrek esan nahi du ezen, orain arte urteko egun guztietan goiz eta arratsaldez irekitzen bazen ere, hemendik aurrera goizeko ordutegia bakarrik iza-

nen duela, asteartetik igandera eskari handiko denboraldian, eta asteburuetan bakarrik eskari gutxikoan.

Biziki harrigarria da Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuak halako erabaki bat hartu izana Erriberriko turismo bulegoari dagokionez; izan ere, informazio eskaera gehien jasotzen dituztenetako bigarrena da (iaz, 40.000 pertsonatik gora), soilik Iruñaren atzetik. Are gehiago; departamentuaren esanetan, "Erriberriko turismo bulegoa puntu estrategikoa da, Nafarroako Erdialdean duen kokalekuagatik, monumentu-multzo bat izateagatik eta Ardoaren Ibilbidearen erdigunean egoteagatik.

Galderaren testua

• Zer arrazoi dela-eta hartu da ez turismoaren ikuspegitik ez kulturaren ikuspegitik justifikatzen ez den erabaki bat?

• Zer dela-eta Erriberriko bulegoa nabarmen diskriminatzen da, Orreagakoarekin batera, Zangozako, Bertizkoa edo Erronkarikoa bezalako beste batzuen aldean?

• Udalerriaren eta kaltetutako entitateen eskaerak ikusirik, Gobernuak ba al du asmorik atzera egiteko Nafarroaren Erdialdeko turismo eta kulturarako nabarmen kaltegarria den erabaki horri dagokionez?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, Mendiei buruzko Erregelamendua onesten duen otsailaren 17ko 59/1192 Foru Dekretuko 89 eta 90. artikulua betetzeko hartutako neurri buruzkoa.**

*MIREN JULIA ARANOASTIGARRAGA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, Mendiei buruzko Erregelamendua onesten duen otsailaren 17ko 59/1192 Foru Dekretuko 89 eta 90. artikulua betetzeko hartutako neurri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

1. Zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak azken urteotan, Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea garatzen duen eta Mendiei buruzko Erregelamendua onesten duen otsailaren 17ko 59/1992 Foru Dekretuko 89 eta 90. artikulua betetzeko?

2. Nafarroako Gobernuak gauzatu al du aipatu foru dekretuaren 89. artikuluko b) puntua? Hala bada, foru agindu desberdinen kopia eskuratu nahiko nituzke.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

## **Galdera, BEZa dela-eta, 2013ko apirilean lortuta zegoen diru-bilketari buruzkoa.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, BEZa dela-eta, 2013ko apirilean lortuta zegoen diru-bilketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Duela aste batzuk ezagutu genituen martxoaren 31ra bitartean erregistraturiko diru-bilketari buruzko datuak. Horietan, Gobernuak jakinarazten zuen % 61,53ko beherakada izan dela balio erantsiaren zergari dagokion diru-bilketan, bidezkoak diren doikuntzak egin gabe, 2012ko epe berean bildutakoarekin alderatuta.

Halaber, bidezkoak diren doikuntzak egin ondoren, bereziki Volkswagenek 2013ko eta 2012ko lehen hiruhilekoan erabilitako fakturazio-sistema desberdinaren eraginetik eratorriak,

Gobernuak jakinarazi zigun diru-bilketak izandako jaitziera askoz ere txikiagoa zela.

Gaur, maiatzak 23, Gobernuak ez ditu oraindik ere zintzilikatu 2013ko apirilari dagozkion diru-bilketaren datuak bere webguneko "Hileko diru-sarreak 2013" izeneko atalean. Hala ere, "Aurrekontuaren jarraipena" izeneko atalean, Gobernuak jarri du, bai, apirileko diru-bilketa garbiari buruzko informazioa, eta, horren arabera, BEZari dagokionez, alde handia atzematen dugu, oraindik ere, 2013ko eta 2012ko datuen artean. Zehazki, balio erantsiaren gaineko zergaren lerroan 105.815 mila euro agertzen dira, 2012ko data berean 332.825 mila euro ziren bitartean.

Txosten berean, "Hitzarmen Ekonomikoaren doikuntzak" izeneko lerroan –linea horretan, teori-

an behintzat, BEZa eta zerga bereziak sartzen dira–, -6.257 mila agertzen dira 2013an, 2012ko -61.257 milaren aldean.

Parlamentari honi bereziki garrantzitsua iruditzen zaio 2013ko apirilaren eta 2012ko apirilaren arteko alderaketa bat edukitzea, datu doituekin.

Hori dela eta, hona galdera:

- Zein izan da BEZagatiko diru-bilketa doitua 2013ko apirila arte, 2012koarekin alderatu dezakeguna? Zenbatekoa izan da diru-bilketaren beherakada? Zein da apirilaren 30a bitarteko BEZaren diru-bilketaren datu doitua lortzeko formula, eta zein da batugaien balioa?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, udako igerileku berriak finantzatzeko, Tafallako Udalari diru-laguntza bat emateko hartu beharreko erabakiaren zirriborroari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, udako igerileku berriak finantzatzeko, Tafallako Udalari diru-laguntza bat emateko hartu beharreko erabakiaren zirriborroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Hedabideetan agertu da Nafarroako Gobernuaren erabaki baten zirriborroa –erabaki hori azkenean hartu ez bazen ere–, zeinaren bidez onesten zen diru-laguntza bat ematea Tafallako Udalari, udako igerileku berriak finantzatzeko aldera. Gobernuaren erabakiaren zirriborroaren testua <http://ahorazonamedia.com/wp-content/uploads/2013/05/EI-Gobierno-de-Navarra.pdf> helbidean eskuragarri dago, eta honako testua du: "Nafarroako Gobernuaren erabakia, 2013ko maiatzaren 8koa, zeinaren bidez baimena ematen baitzaio Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileari, diru-laguntza zuzena emateko Tafallako Udalari, Tafallako Kirol Hiriafaren bigarren faseko kirol instalazioak eraikitzeke lane-tarako, bai eta diru-laguntza hori xedatu eta ordaintzeko beharrezkoa den gastu-konpromisoa hartzeko, duen garrantzi bereziagatik..." Dirudie-nez, testu horrek erakusten du Nafarroako Gobernuak diru-laguntza hori emateko asmoa zuela.

Hori dela-eta, eta honen aurretik eginiko galde-ra idatzien harira, hauxe jakin nahiko nuke:

1.- Dokumentu hori Nafarroako Gobernuaren agiri ofizial bat al da, lanekoa soilik bada ere?

2.- Kasua bada, zergatik ez zen onetsi diru-laguntza hori ematea 2013ko maiatzaren 8ko

gobernu-bileran, dokumentuan ageri den moduan?

3.- Zer aurreikuspen du Nafarroako Gobernuak, egutegiaren arabera zehaztuta, diru-laguntza hori emateko?

4.- Ba al da konpromiso zehatzik gai horren inguruan Nafarroako Gobernuaren eta Tafallako Udalaren artean?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

**Galdera, Ultzama, Malerreka, Baztan, Altsasu, Irurtzun, Etxarri-Aranatz, Leitza eta Bortzirietako oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitateek Nafarroako toki entitateentzako diru-laguntzen deialdiaren oinarriak 2013rako ezartzen dituen Foru Aginduaren aurka aurkeztutako errekurtsuari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Ultzama, Malerreka, Baztan, Altsasu, Irurtzun, Etxarri-Aranatz, Leitza eta Bortzirietako oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitateek Nafarroako toki entitateentzako diru-laguntzen deialdiaren oinarriak 2013rako ezartzen dituen Foru Aginduaren aurka aurkeztutako errekurtsuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ultzama, Malerreka, Baztan, Altsasu, Irurtzun, Etxarri-Aranatz, Leitza eta Bortzirietako oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitateek errekurtsua aurkeztu dute Nafarroako toki entitateek babestutako enplegu sozialerako proiektuak abian jartzeko diru-laguntzen deialdiaren oinarriak 2013rako ezartzen dituen Foru Aginduaren aurka. Hori ikusirik eta jakinik errekurtsua ez onartzeak ondorio kaltegarriak ekarriko lituzkeela, hauxe jakin nahi dut:

1.- Zer jarrera hartuko du Nafarroako Gobernuak?

2.- Errekurtsua onartzen ez badu, zer neurri hartuko ditu horrek aipatu eskualdeetarako izanen lituzkeen ondorio kaltegarriak saihesteko?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro